

**HIZKUNTZA ETA ESKOLA:
OREXAKO HAURRAK TOLOSAKO ESKOLAN**

KONTXI GOIKOETXEAUNDIA

Haurren hizkuntza eta eskola zuzenki erlazionatuta daudenez, sozio-linguistika zientzian oinarrituta, galdera hau planteatzen dugu: haurren hizkuntza, bere eskolarizazio prozesurako oztopo izan al daiteke?

Ama-hizkuntzaren eskolarako balioa da hemen planteatzen duguna; baina, gure ingurunean, bigarren hizkuntza baten, nahiz gaztelania nahiz euskara, lorpenaren arazoa ere ahantz ezina dugu. Bi hizkuntza hauek izango dira haurren eskolarizazio prozesuan eragina izango dutenak.

Eragin hau ikustearren Orexako haurren eskolarizazio prozesua aztertu dugu. Haur hauek aukeratzek baditu bere arrazoiak, lau nagusiki:

- Orexa Gipuzkoako herri txikiena da, guztiz herri euskalduna.
- Bertakoen ogibidea baserria hutsa dela esan dezakegu, nahiz eta lan-tegietara ere jotzen duten.
- Haur hauek Orexako euskaraz hitzegiten dute etxean, baina eskolan euskara batua esijitzen zaie.
- Guztiz herri euskalduna denez, beren herrian ez daude gaztelaniarekin kontaktoan; gaztelania bigarren hizkuntza bezala sartuko zaie eskolan.

Idazki honen helburua, ondoren planteatzen diren bi hipotesiak haur hauen kasoan betezen direla azaltzea da. Azalpen hau eskeini ondoren, haur hauen hizkuntza ez dela beren eskolarizazio prozesurako oztopo izango baieztatzeko gai izango gara.

Hona hemen aurrean aipatutako bi hipotesi horiek:

1.- Nahiz eta haur hauen etxeko euskara eta eskolako ezberdinak izan, Lavob-ek dioena kontutan hartuz geroz, hau da, hiztunak bere testuinguruaz ezagutu eta bere hizkuntza testuinguru horretara egokitzen duenez geroz, testuinguruaren aldaketarekin batera haur hauen hizkuntza ere aldatu egingo dela pentsa daiteke; aldaketa honen ondorioz, haur hauek eskolan ez dute hizkuntza arazorik izango.

2.- Bestalde, bigarren hizkuntzaren lorpenaren alorrean, gaztelania bigarren hizkuntza dela jakinik eta, hain zuzen ere, hizkuntza hori eskolan lortzen hasi direla kontutan izanik, hizkuntza horretan interferentziak

agertuko direla zihurtzat jo genezake. Interferentzia horiek bai fonologia, bai gramatika, baita lexiko mailan ere agertuko dira. Guzti hau dela eta, bigarren hizkuntza hau arazotsuagoa izango dela beraientzat pentsa daiteke.

Hasera batean aipatu dugu planteamentu eta azterketa hau egiterakoan soziolinguistikan oinarritzen garela. Soziolinguistika hitzak berak dioenez, hizkuntzaren alderdi sozialak ere behatu eta analizatu beharrekoak dira; ez hizkuntza bakarrik baizik eta inguruneak hiztunarengan duen eragina ere aztergai dugu. Beraz, gure helburua lortu nahieran bi azterketa mota egin beharko ditugu: azterketa linguistikoa alde batetik eta azterketa soziolinguistikoa bestetik. Azken pauso bezala, bi analisi horien emaitzak erlazionatu eta erlazio horietatik ondorioztatzen dena azaldu beharko dugu.

Azterketa linguistiko bat egiterakoan jarraitzen diren pautak berdintsuak dira gehienetan eta ez gara pauta horien azalpenean luzatuko. Esan, azterketa hau burutzeko egin diren probak haurren etxeetan jasoak izan direla, etxean hitzegiten duten euskara jasotzea zela gure helburua; eta, proba hauetan, bai euskaraz bai gaztelaniaz, aho eta idatzizko adierazpenak bildu ditugula.

Aldagai soziolinguistikoak aldiz, aipamentxo bat merezi dutelakoan gaude. Hiru aldagai multzo bereizi ditugu:

1.- Haurren inguruko aldagaiak. Aldagai multzo honetan, txiki txikitatik haurrarekin zuzenki erlazionatuta dauden pertsona eta ingurunearen ezaugarri ezberdinek, haur horren hizkuntza eta eskolarizazioan izan dezaketen eraginaren norainokoa ikus ahal izango dugu. Ingurune horretan ondoko aldagai hauek aztertu ditugu:

- Gurasoen hizkuntza.
- Herriko hizkuntza.
- Gurasoen jatorria.
- Gurasoen ikasketa maila.
- Gurasoen maila sozioekonomikoa.
- E.I.T.B.-ren eragina.

2.- Aldagai pedagogikoak. Eskolari lotutako aldagai multzoa dugu hau. Beraien bidez eskolako alderdi ezberdinen eragina nolakoa den neur daiteke. Eskolak suposatzen duen erakunde horren barruan, beste aldagai hauetan finkatu gara:

- Eskola tipologi linguistikoa.
- Eskolako euskara eredia.
- Metodologia.
- Irakaslea.
- Gelako haur kopurua.
- Bigarren hizkuntzaren lorpenean lantzen diren alor nagusiak.
- Bigarren hizkuntza sartzen hasten den adina.
- Gaztelaniazko klaseetan erabiltzen den hizkuntza.
- Gaztelaniazko klaseetarako irakasle berezi bat.

3.- Aldagai indibidualak. Atal honetan haurra beraren jarrerak eta ahalmenak izan ditugu aztergai. Gure kasoan honako hauek azpimarratu ditugu:

- Haurren jarrera euskara eta gaztelaniarekiko.
- Eskolako lagunekin hitzegiten duten euskara.
- Haurren kapazitatea hizkuntza aldetik.
- Haurren kapazitate orokorra.

Aldagai hauen banakako azterketa egin ondoren, beraien artean dau-den erlazioak ikustea posibilitatuko ziguten korrelazioak ere ezarri genituen; ez ditugu honen korrelazio horiek aipatuko oso zerrenda luzea izango litzateke eta.

Azalpen guzti hau egin ondoren, bai azterketa linguistiko baita aldagai soziolinguistikoaren azterketaren ondorioak ere aipatzea beharrezkoa da.

1.- Azterketa linguistikoaren ondorioak. Bi hizkuntzetan egindako proben ondorioak azaldu behar ditugu:

- Euskara aldetik honako hauek ditugu:

a) Etxeko euskara, aho adierazpenean adierazpen idatzian baino neurri handiago batean mantentzen da.

b) Euskara normalizatua, hau da, eskolako euskararen eragina aho adierazpenean agertzen bada ere, nabariagoa da adierazpen idatzian.

- Gaztelaniari dagokionez beste ondorio hauek ditugu:

a) Bai fonologian, bai gramatikan, baita lexikoan ere interferentziak aurkitzen ditugu.

b) Interferentzi horiek haur txikienengan ageri dira nagusiki; goi zikloko haurrengan ez dugu interferentziarik aurkitzen.

d) Bigarren hizkuntza honen erabilpena zuzenagoa da aho adierazpenean idatzizkoan baino.

e) Gaztelania kultoaren eragina ere azaltzen zaigu; azalpen honen atzean irakurketa edo telebista espāñolaren eragina somatzen dugu.

Bai euskara baita gaztelaniazko probatan ere, haur txikienengan -eskolaurre, hasera eta erdi ziklokoengan- ageri den esaldi koordinatuen erabilpena azpimarragarria da. Erabilpen hau, mailaren igoerarekin batera gutxituz doa; hala nola, goi zikloko haurrengan menpeko esaldiak garrantzi handiago hartzen duten; denborazko esaldiak, esaldi kausalak eta modalak ere azaltzen dira. Beraz, mailaren igoerarekin batera, hizkuntzaren erabilpen borobil eta hobeago bat aurkitzen dugu.

Esan behar dugu, proben bilketaren testuingurua beren etxea izanik (nahiz eta proba izatearen aldagaia ageri den testuinguru horretan aldaketa bat eraginez), euskara batuaren agerpena somatzen badugu egoera horretan, logikoa da eskola barnean azalpen hori neurri handiago batean gertatuko dela itzarotea; hau da, beren hizkuntza testuinguruaren aldaketarekin batera aldatuko dela eta, ondorioz, ez dutela eskolan hizkuntza arazorik izango itzarotea.

2.- Aldagai soziolinguistikoen azterketaren ondorioak. Aldagai sozilinguistiko ezberdinen arteko eragina eta, haurren hizkuntza aldeko kapazitatea eta kapazitate orokorra aztertu ondoren, honako ondorio hauek atera ditugu:

a) Nahiz eta haurren gehiengoak, bai euskara baita gaztelania alorrean ere, eskolan ezarritako helburuak ongi betezen dituen, gaztelania aldetik zailtasun gehiago dutela nabaritzen da.

b) Etxeko eta herriko hizkuntzak eta eskolako tipologia linguistikoak ez dute eragin ezezkorrik haur hauen eskolarizazio prozesuan.

d) Maila sozioekonomikoren eragina nabariagoa da -beti kultura maila zabaltzeko eskeintzen dituen posibilitate eskasak begiratur-. Eragipen hau ez da hizkuntza aldeko kapazitatean nabaritzen; bai ordea kapazitate orokorrean.

Azken ondorioa.

Gogoratzen bagara, idazki honen helburua zera zen: haurren hizkuntza eskolarizazio prozesu arrakastatsu baterako oztopagarri ez dela frogatzea. Bai azterketa linguistikoaren baita aldagai soziolinguistikoen azterketaren ondorioak ikusi ondoren, hipotesi hori frogatua geratzen da eta baieztapen bihur dezakegu.

Bigarren hizkuntzaren lorpenari dagokionez, hizkuntza horretan ama hizkuntzaren interferentziak agertuko zirela zihurtzat jotzen genuen eta hala gertatzen dela ikusi dugu. Honetan gainera, zenbait aldagai sozilinguistikoen eragina dela eta, bigarren hizkuntza horren erabilpenean zailtasun gehiago izango dute.

Ondorioz, haur hauen hizkuntza ez da eskolarizazio prozesu arrakastatsu batetarako oztopo. Azken finean, idazki honen zehar planteatutako bi hipotesiak frogatuak geratzen dira eta, lehenengoari dagokionez, Lavobek zioena defendatzen dugu, hau da: hiztunak bere testuingurua ezagutzen duela eta testuinguru horretara egokitzen duela bere hizkuntza.